



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Esp. zkia.:	2023IOPO0002
Azalpena:	ERRIBERAKO ATEZAIN – ADMINISTRARI LAGUNTZAILE PLAZA. Izendapen proposamen berria

766/2024 Dekretua, ekainaren 13koa, atezain – administrari laguntzaile plaza betetzeko hautaketa-prozesuari buruzkoa.

Udaleko funtzionarioen plantilla organikoan hutsik dagoen atezain – administrari laguntzaile plaza txanda irekiko lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia eta oinarriak onartu zituen Astigarragako Tokiko gobernu-batzarrak.

Hautaketa-prozesua amaituta, epaimahai kalifikatzaileak, ekainaren 6an hautaketa-prozesuko behin betiko emaitzak, azken kalifikazioa eta izendapen proposamena onartu zituen, eta egun horretan argitaratu ziren udal webgunean.

Halaber, oposizio-lehiaketan 1. postuan gelditutako hautagaiari 10 egun-balioudun eman zitzaizkion parte hartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak (edota konpultsatuak) eta alegatutako merituena aurkezteko.

Ekainaren 11n (2024-00000002450 erregistro zenbakia), horrek uko egin dio lanpostua hartzeari.

Kontuan harturik Oposizio-lehiaketa hau arautzen duen hamaikagarren oinarriak honako hau adierazten duela, honelako kasuetarako:

“Hamaikagarrena.- Azken kalifikazioa eta Epaimahaiaren proposamena.

(...)

Proposatutako izangaiak, udaletxeko iragarki-oholean izendapen-proposamena argitaratu eta 10 egun baliouduneko epean, oposizio-lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, bai eta eskabidean alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak ere.

Esandako epean eta horretarako arrazoi nagusiagorik izan gabe, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ez da izendatua izango eta haren jardunak baliorik gabe geldituko dira.

Kasu horretan, behin betiko sailkapen hurrenkerako lehentasunari jarraituz, bertan behera utzitakoaren lekua hartuko du deitutako lanpostu kopuruan sartzen den izangaiak, eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.”

Horregatik guztiagatik, enplegatu publikoen arloan indarrean dagoen legerian xedatutakoa kontuan hartuta, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- 35775003K NAN zenbakia duen hautagaiak egindako ukoa onartzea

ESKUE4cbd05f-32f1-4e8c-9de8-2d555fea5a5d



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Oposizio-lehiaketan 2. postuan gelditutako hautagaiari, hau da, **44170556E** NAN zenbakia duen hautagaiari **10 egun balioduneko epea** ematea, ebazpen hau argitaratu eta biharramunetik aurrera, parte hartzeko baldintzak egiaztatzen dituen jatorrizko agiriak (edota konpultsatuak) eta alegatutako merituena aurkezteko

Astigarragan, 2024eko ekainaren 13an.

Xabier Urdangarin Lasa
alkatea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IOP00002-dekretua/decreto (LAHIDALGA,UGARTE,IDOIA)